

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE SUPERMERTATU BAT INAUGURATU DU GIPUZKOAN, ERRETERIAN

- Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei fabrikatzaileen markekin, kalitatezko marka propio batekin eta freskoetan duen lidergoarekin
- Saltokian sei langile ari dira
- EROSKI k 52 frankizia inauguratu ditu 2020an, eta 7,8 milioi euroko inbertsioa egin du guztira; horrekin, 312 lanpostu sorrarazi dira
- Kooperatibak eusten dio CEAJErekin duen lankidetzaz hitzarmenari, eta beste hitzarmen bat egin du ATArekin, enpresaburu gazteen ekintzailatza lagundu eta sustatzeko

Erreteria (Gipuzkoa), 2021eko azaroaren 24a.- [EROSKI](#)k supermerkatu berria inauguratu du gaur, Erreterriako Miguel Zabaleta kaleko 13.ean. EROSKI/City izeneko da saltokia, eta, bezeroarenganako arreta pertsonalizatuagoa eman ez ezik, tokian tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde apustu indartsua egingo du; horretaz gainera, elikagai osasungarriak sustatuko ditu, eta dirua aurrezteko modu berriak eskainiko ditu eguneroko erosketetan. Saltokiak sei langile izango ditu

Supermerkatuak produktu sorta zabala eskainiko du, ekoizle liderren markakoa, marka propioa eta tokiko ekoizleena, eta ia 200 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoi sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak, era berean, ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasun handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 265.600 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako bezero-bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak ikusten ari dira dagoeneko Gipuzkoan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKIk 52 frankizia inauguratu ditu 2020an. Guztira, 7,8 milioi euro inbertitu ditu, eta 312 lanpostu sorrarazi. EROSKIk aurreko urteetako irekieren erritmoari eusten dio, eta, sei urte honetan, 340 inaugurazio egin ditu; hortaz, gaur egun, frankizia erako 500 supermerkatu baino gehiago ditu. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante.

EROSKIren frankizia sareko supermerkatuen salmentak %15 handitu ziren 2020. urtean; hortaz, azken urteetako hazkundera eta zabalkundera sendotu egin da. *"Merkatutik bestelako frankizia eredu bat eskaintzen dugu, geure izaera kooperatiboak (geure bazkide langileekin) ekintzaileen premietatik hurbil kokatzen gaitu eta. Eredu komertzial erakargarri bati esker lortu dugu haztea; izan ere, COVID-19ak eragin duen osasun krisian sektoreko batez bestekoak baino hobeto bete ditugu kontsumitzaileen beharrak"*, nabarmendu du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinezek.

Lankidetzaren hitzarmenak

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkarten Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetzaren hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzaitza lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da, Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkarten Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)